

Gobernu Batzordearen Akta

2024ko abenduaren 16a

Bildutakoak:

| | | |
|-----------------------------------|--|----------------------------------|
| | | Akta Zenbakia 00000016 |
| Patxi Ibarguren Etxeberria | Lehendakaria eta Hernaniko Udaletik | Eguna 2024/12/16 |
| Pepe Iparraguirre Balda | Andoaingo Udaletik | Iraupena |
| Iratxe Begiristain Otegi | Usurbilgo Udaletik | - |
| Jorge Segurado Iriondo | Urnietako Udaletik | |
| Nuria Fernández Castrillo | Lasarte-Oriako Udaletik | |
| Xabier Urdangarin Lasa | Astigarragako Udaletik | |

Asistentzia teknikoa:

| | |
|--------------------------------------|----------------------------------|
| Julen Mungia Gorrotxategi | Idazkari-Kontuhartzzailea |
| Helene del Río Laboa | Zuzendaria |

Gai Zerrenda

- 1.- 2024/12/09(e)an egindako bileraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada.
- 2.- Kontuen Batzorde Bereziak oniritzia ematea aurreko Batzordeko (2024/12/09) 2025. urteko aurrekontuen aldaketak baitan hartzen dituena.
- 3.- Galdera, erregu eta proposamenak.
- 1.- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la sesión celebrada el 09/12/2024.
- 2.- Aprobación por la Comisión Especial de Cuentas de las modificaciones presupuestarias del año 2025 propuestas en la anterior Comisión (09/12/2024).
- 3.- Ruegos, preguntas y propuestas.

Nahikoa quorum dagoenez eta Lehendakaria eta Idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzen da.

1.- 2024/12/09(e)an egindako bileraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada.

Lehendabizi, 2024/12/09 datako batzarraldiari dagokion akta irakurri ondoren, Lehendakariak honen onarpena bozketara jarri du eta Gobernu Batzordeak, aho batez, ontzat eman du.

2.- Kontuen Batzorde Bereziak oniritzia ematea aurreko Batzordeko (2024/12/09) 2025. urteko aurrekontuen aldaketak baitan hartzen dituena.

Urnietako ordezkariak hartu du hitza eta eskerrak eman ditu kontuan izateagatik beraiek eskatutako aldaketak eta honekin aurrera egingo duela esan du.

Lehendakariak bozkara eraman du gaia eta aho batez onartu dute Kontuen Batzordeko Kideek 2025ko aurrekontuak, lanpostuen zerrenda eta plantilla organikoa.

Gai Zerrendaz kanpo, *Galdera, erregu eta proposamen* atalera iritsi aurretik, eta gaiaren eztabaida presazkoa dela iritzi ondoren, aho batez, eta beraz, batzarkideen gehiengo osoaren quorumarekin, ondoko erabakiak hartu ziren

3.- Galdera, erregu eta proposamenak.

Lehendakariak hainbat aipamen egin ditu:

1. Elkarrekin programa. Bi urtetako programa dela gogorazi du eta 2022-2024ri buruzko proiektua justifikatu dugula esan du eta GFAkoak esan digutela helburuak lortu ditugula.
2025-2027ko proketua ere aurkeztu dutela eta begi onez ikusi dutela. Gainera, zoriondu gaituzte hain denbora gutxian eskualdeko eragileen sarea sortu dugulako eta horrek gainontzeko eskualdeen mailan jarri gaitu.
2. Emaktiva. Datorren urtean Elkarrekin programan sartzeko baldintzak ez dituzte betetzen beraz gure eskualdeko saretik kanpo gelditzen da.
3. Iraunkortasun saila desagertzea eta Enpresa sailan sartzeak ondorio batzuk dituela adierazu du, adibidez:
 - a. GFAk antolatzen duen *Bizikleta Kontseiluan* parte hartzea edo ez. Azkeneko bilerara ez ginen joan baina kolokan gelditzen da hemendik aurrera nola jokatu honekin.
 - b. Eskualdeko energia mahaia. GFAk Gipuzkoako eskualdeak deitzen ditu. Eskatu dugu energia gai hauek enpresatara bideratu ditzakegun edo nola jokatu dezakegun gai honetan beraiekin, enpresaren alorretik

Hala ere, gai hauek ez dira berehalakoak, beraz, datorren urtean erabaki ditzakegula esan du.

4. Turismo Teknikariaren lanpostua. Programa bidez hartu dugu teknikari hau. Horretarako, gure lanpoltsen kudeaketaren erreglamendua jarraituta, eskualdeko lanpoltsaren bat erabiltzen saiatuko gara. Horretarako Andoaingo lanpoltsa erabiliko dugu.

Urnietako ordezkariak galdu du nola dagoen lanpoltsa hori eta Andoaingo ordezkariak erantzun dio zerrendan badagoela jendea baina gero, behin bananbanan deitzen hasita, ikusi beharko dela nor egongo litzatekeen prest postu hori hartzeko.

5. 2024. Ekitaldiko memoria egiten ari garela esan du eta urtarilean aurkezteko asmoa dagoela. Datorren Gobernu Batzarra 2025ko urtarrilaren 27n egitea pentsatzen dela eta bertan aurkeztuko da memoria.
6. Bihar Enpresa eta Ekintzailetzarako mahai teknikoa deitua dagoela gogorarazi du.

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du ohiko batzarraldia. Idazkari-Kontuhartzaileak batzarraldiari dagokion agiri hau idatzi eta Lehendakariak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorri Toki Erakundeen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, naizen honek, ematen dut.

O.E., / Vº Bº
Lehendakaria

Idazkari-kontuhartzailea

1.- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la sesión celebrada el 09/12/2024.

En primer lugar, tras la lectura del acta correspondiente a la sesión de fecha 09/12/2024, la Presidenta somete a votación la aprobación de la misma, que es aprobada por unanimidad por la Junta de Gobierno.

2.- Aprobación por la Comisión Especial de Cuentas de las modificaciones presupuestarias del año 2025 de la anterior Comisión (09/12/2024).

Toma la palabra el representante de Urnieta, quien agradece que se hayan tenido en cuenta los cambios que ellos habían solicitado y que va a continuar con esto.

La Presidenta somete el asunto a votación y los miembros de la Comisión de Cuentas aprueban por unanimidad los presupuestos del año 2025, la relación de puestos de trabajo y la plantilla orgánica.

Fuera del Orden del Día, antes de llegar al apartado de Ruegos, Preguntas y Propuestas, y tras considerar urgente la discusión del asunto, se adoptaron por unanimidad, y por tanto con el quórum de la mayoría absoluta de los miembros de la Junta de Gobierno, los siguientes acuerdos.

3.- Ruegos, preguntas y propuestas.

La Presidenta hace varias alusiones:

1. Programa Elkarrekin. Recuerda que es un programa de dos años y que hemos justificado el proyecto de 2022-2024 y que la DFG nos ha dicho que hemos conseguido los objetivos.

Que han presentado el proyecto 2025-2027 y lo han visto con buenos ojos. Además, nos han felicitado por crear en tan poco tiempo una red de agentes comarcales que nos ha posicionado al nivel del resto de comarcas.

2º Emaktiva. No cumplen los requisitos para la inclusión del programa Elkarrekin del año que viene por lo que queda fuera de la red de nuestra comarca.

3. La desaparición del departamento de Sostenibilidad y su inclusión en el área de Empresa ha puesto de manifiesto algunas consecuencias, como:

a. Participación o no en el *Consejo Ciclable* organizado por la DFG. No acudimos a la última reunión, pero a partir de ahora queda en entredicho cómo actuar con ella.

b. Mesa de energía comarcal. La DFG llama a las comarcas de Gipuzkoa. Hemos pedido que podamos canalizar la energía a las empresas o cómo podemos actuar con ellas en este tema desde el ámbito empresarial

Sin embargo, estos temas no son inmediatos, por lo que dice que podemos decidirlos el año que viene.

4. Puesto de Técnico de Turismo. Vamos a contratar a un/a técnico/a de turismo por "programa". Para ello, siguiendo el reglamento de gestión de nuestras bolsas de trabajo, intentaremos utilizar alguna bolsa de la comarca. Para ello utilizaremos la bolsa de trabajo de Andoain.

El representante de Urnieta pregunta cómo está esta bolsa de trabajo y el representante de Andoain responde que hay gente en la lista pero que luego, una vez que se llame de uno en uno, habrá que ver quién estaría dispuesto a coger ese puesto.

5.º Estamos elaborando la memoria del ejercicio 2024 y que la intención es presentarla en enero. Se prevé que la próxima Junta de Gobierno se celebre el 27 de enero de 2025 y en ella se presentará la memoria.

6.- Recuerda que mañana está convocada la Mesa Técnica de Empresa y Emprendimiento.

Gobernu Batzordearen Akta

2024ko abenduaren 16a

Y sin más asuntos que tratar, la Presidenta levanta la sesión ordinaria. Redactado por el Secretario-Interventor el presente documento relativo al período de sesiones, con la lectura y visto bueno de la Presidenta, lo firman ambos de conformidad con lo dispuesto en el artículo 110.2 del vigente Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Local. Y de cuanto antecede, doy fe.

**O.E., / Vº Bº
La Presidenta**

Secretario-Interventor



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024BG010016-Akta Ofiziala/Acta Oficial (BETERRI BURUNTZA)